


Publicaciones de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País

JAUNAREN BIDETAN

(Jesus'en bizitzako Amar irudi)



SAN SEBASTIAN
1959

AUGUSTIN ZUBIKARAI

JAUNAREN BIDETAN

(Jesus'en bizitzako Amar irudi)

IRUDIAK

- I. ERRAMU ARTEAN
- II. JERUSALEM
- III. AZKEN APARIA
- IV. GETSEMANI
- V. JUDAS
- VI. PILATOS'EN ETXIAN
- VII. JERUSALEM'GO ALABAK
- VIII. KURUTZEAN
- IX. BAKARTADEAN
- X. ALLELUIA

ANTZEZLARIAK

MUTILTZOAK: JONATHAS, NOEMI, ABEL, ELEAZAR, IS-
MAEL (itsua), SAMUEL, ISAAK.

GIZONEZKOAK: IRAGARLE, ZABULON (Bethania'ko bertsolaria,
agure igar okertua); GOG (demoniñoz beteriko gaztea); RUBEN,
BAAL, OZIAS (gazteak); JESUS, PEDRO, JUAN, SANTIA-
GO, MATEO, JUDAS, beste zazpi APOSTOLUAK (itzik gabe);
MALKO; ZEKEN (demonifua); PILATOS; TOBIAS, ELIAS
(eleiz-gizonak); RUBEN, BOOZ, JOSUE, Noe (erri-zaindaria);
JEREMIAS (agure zar-egifia).

EMAKUMEAK: MARIA, MADALENA, M. JAKOBA, M. KLEO-
FAS, M. SALOME; AINGERUA.

I. ERRAMU ARTEAN

JONATHAS, NOEMI, ABEL, ELEAZAR, ZABULON, ISAAK, ISMAEL, SAMUEL,
GOG, RUBEN, BAAL, OZIAS, JESUS, APOSTOLUAK, UMIAK eta ERRITARRAK

Jerusalem'en ingurutan

IRAGARLE.—(*Oyala zabaldu aurretik, kantuz. Doña: Ondarru'n abestu oi dana.*)

Fedeko egia bat
kantuzko moduan,
zer pena pasa zuan
Jesus'ek munduan.
Ia bada kristauak
aditu kontuak,
izan bear genduen
zerutik kanpuan,
Jesukristo il ez ba litz
kurutze santuan,
Jesukristo il ez ba litz
kurutze santuan.

Ume eta gizonak,
andra ta agurak,
Jerusalem'go atetan
Jesus an sartzean.
Hosana ta txaloka,
kantu ta oyuka,
Nok igarri orduan
gero ze etorko zan?
Negar orraitik Jaunak
bere biotzean,
ekialako berak
pekatua zer zan.

(*Oyala zabaltzean JONATHAS, NOEMI ta ABEL, iru mutil-*

txo gaizto, lurrean etzanda egoten dira. Beriala jaiki ta urrunduteko asmoz dira, baña...)

NOEMI.—Ekatzu makilla ori.

JONATHAS.—Neuria da.

NOEMI.—Ez da.

JONATHAS.—Norena ba?

NOEMI.—Kaifas'enea.

JONATHAS.—Esaten dozulako be gero!

NOEMI.—Esan ez? Zegaitik ez?

JONATHAS.—Nundik eta zelan dauka berak?

NOEMI.—Amak emon eutsan.

JONATHAS.—Aren amak? Nundik atarata?

NOEMI.—Bai, amak bai, atzo gabaz.

JONATHAS.—Orixe da edozer esatia!

NOEMI.—Neuk ikusi neban emoten. Zegaitik esan ez?

JONATHAS.—Zera ikusi.

NOEMI.—Ez da ba egia, Abel?

JONATHAS.—Orrek ze esango dau ba, bere bildurrez bizi da ta memeluo?

ABEL.—Memelua ni? Nai dozu beste bein orixe esan ezetz?

JONATHAS.—Zegaitik ez?

ABEL.—Nai dozu kolpe egin ta lurrian zapaldu?

JONATHAS.—Zeñeri kolpe, nori?

ABEL.—Goliat zariala pentsa bestela be!

JONATHAS.—Eta zu Dabid, ezta?, memelo zistriñoi alakuoi?

ABEL.—Ostera be memelua niri deitu? Berba asko egiten ba dozu gero... Txo...!

NOEMI.—Tira, tira, naikua da ta.

JONATHAS.—Egin ez zugaitik? Zein zara ba?

ABEL.—Zuk hurrari musu emon naitzazu ezta?

JONATHAS.—Sanson zara zu bestela be orretarako-ta!

ABEL.—*(Berotuta.)* Mekatxis! Zuk niri koplak?

(Burrukan oratu ta ekiñalditxo egiten dabe alkar ezin menderaturik. NOEMI eurak ezin banaturik ibiliko da, alpe-rririk. JONATHAS beian geratsen da zartadaka. Bere gañean ABEL, arro.)

NOEMI.—Laga egiozu, itxi gixajo orreri.

ABEL.—Oneri laga? Ez beintzat txil atara eragin arte, merezi dau-ta.

JONATHAS.—Ikusiko dozu, txo, urrengo atrapatzen zaitudanian. Amak be etzaitu salbako ba!

ABEL.—Beti urrenguan? Urrrenguan beti? Orain zegaitik ez? Ia... ia... Nun dira zure arrokeriak?

NOEMI.—Laga egiozu, itxi bein.

ABEL.—Ezetz ba txil esan arte. Txil?

JONATHAS.—Ez! Gure kalia atrapauko zaitut oindifio.

ABEL.—Txil?

JONATHAS.—Ez! Ez! Euzkirik eztozu geyago ikusiko ba!

ABEL.—Urrrenguan beti? Esaten dozulako be gero!... Irugarrenez esango dautsut. Txil?

(ELEAZAR mutiltxua sartzen da bixkor, arnas estuka. Burrukan ikustean pixkat atzeratzen da, baña beriala kantari...
Doñua: "Oi mutil kopetillun".—Azkue, C. 186.)

ELEAZAR.—Beti auzkan zabiltzen lagun gaizto gangar,
ba zenki zein datorren etziña ain baldar.

JONATHAS, NOEMI ta ABEL.—Guregan zein datorren esaizu mesedez,
zein datorren esan ba mesedez.

ELEAZAR.—Nazaret'eko Jesus guregana dator,
beregana gaitezen dan danok maitekor.

JONATHAS, NOEMI ta ABEL.—Oi, ori da barria, barri zoragarri
Oi barria, biotzen pozkarri.

ELEAZAR.—Gure errian atetan dago goiz goizetik,
umiak jun gaitezen beraren atzetik.

JONATHAS, NOEMI ta ABEL.—Guazen danok bat batez, danok jun
gaitezen,
Jesus ona goratzen, txalotzen.

(Juaten dira. Mutiltxoak urtenaz batera ZABULON, Bethania'ko bertsolaria sartzen da. Makur-makur, erdi tatarrez Astiro itz egingo dau, penas, nekez... itzei indarra emonaz.)

ZABULON.—(Mutiltxoak jua diran tokira deyes.)

Mutil...! Mutil...!

Ori da! Iges arin!

Nik ezin segirik egin!
Tatarrez be naiko zeregin.

Bethania'tik nator tatarrez,
sofia ta gogua baldarrez,
Jesus ori ikusteko garrez,
errukitzen ete dan, negarrez.

Errukitu! Errukitu!
Nire gorputza laster da kitu.
Larogei urte lepoan ditu...
asko geyago ezin loditu.

Enaz ointxe asko geyago,
indarrak geroago ta aulago,
gorputza ifioiz baño lotuago...
Ai Jesus! Jesus! Nun ago?

ISAAK.—(*Mutiltxua. ZABULON'eri begira geratzen da sartzean.*)

Ene, Bethania'ko hertsolari,
nundik zabiz, errukarri?

ZABULON.—Zeuk daruazun bidia...
orixe baita neure kezkia.
Ikusi nai mirari egillia,
ames... ames aren errukia.

ISAAK. Jesus laster ei dator,
origaitik nator.

ZABULON.—(*Errukitsu.*)

Emoidazu esku biguna,
mutikotxu ezezaguna.
Emon zure laguntasuna.
Eutsi... eutsi... kutuna.

ISAAK. Nik arin nai jun baña,
arin eldu nai mendi gaiña.

ZABULON.—Eutsi. Ekatzu eskutxuoi,
ez kezkatu bigunoi.
Nazaretarraren arpegioi
laster dogu begira bioi.

(ISAAK eta ZABULON, alkarri lagunduaz, juaten dira. IS-
MAEL eta SAMUEL agertzen dira. Kantuz dagie euren jarduna.)

Doñuak: ISMAEL'ek: Arantzazu'ko Euskal Poeman agertzen dan doñu zarra. SAMUEL'ek: "Bozkario, bozkario".—Azkue, C. 74I.)

ISMAEL.—(*Nekatuta dator. Itsua.*)

Urrundik bide luze
ta itsua illunpe,
errukarri onen gure
iñor ez nik uste.
Ainbeste illunpetan
noiz arte izango ete,
beti irautekotan
iltzea ez obe?

SAMUEL. Poztu zaite, biztu zaite, adoretu Ismael,
laster dogu Nazaret'eko Jesus ori billatzen,
laster dogu gure poza, gure kezka beteten.

ISMAEL. Argia beti ames,
ikusteko garrez,
dana salduko neuke
ikuste ordañez.
Jesus'ek al ba leuke
nitzat mirari ori,
musuka jango neuke
argian Jaun ori.

SAMUEL. Poztu zaite, biztu zaite, adoretu Ismael,
Zuri beira, zure kezkaz Jesus dago nunbaiten,
laster dogu gure poza, gure kezka beteten.

(Juaten dira, geldiro, GOG, RUBEN, BAAL eta OZIAS zaratatsu datoz. Lotuta dakarre GOG, demoniñoz beteriko gizona. Onek gogor dagitse iges egin guraz. Antzektokian diran bitartean burruka ori bizi bizi erabilli biarko dabe.)

GOG.—Laga egidazue. Kendu! Jun emendik!

RUBEN.—Jesus'ek ikusi barik etzaitugu lagako.

BAAL.—Zu etzara gizon. Diabruak daukazuz barruan.

OZIAS.—Diabruen mende zagoz. Jesus'ek atarakotzuz.

GOG.—Kendu ortik! Laga baketan, zoruok alakuok.

Betiko ondatuta naz. Zuen gaiztakeriak nigan sartu dira.

RUBEN.—Zu etzara olako, Gog.

OZIAS.—Ba dakigu laster gizonduko zariana.
 GOG.—Kentzeko emendik! Txarri biurtua naz. Bota nagizue txarri artera.
 BAAL.—Jesus'ek ikusi zaitzala egingo dogu.
 GOG.—Jesus'ik ezin neike ikusi. Zazpi gizaldiren okerrak nigan sartu dira. Eba'ren atzetiko zitalkeri guztiak nire odolean sartu dira.
 OZIAS.—Jesus'ek osatu zaitzala alegin egingo dogu.
 BAAL.—Nazaret'eko mirarigilliak garbituko zaitu. Etorri gugaz.
 GOG.—Lurpean bizirik sartu nagizuela nayago dot.
 RUBEN.—Zure emazte ta umiak zure errukiz dira, zure negarrez.
 GOG.—Nire emazte ta umien pekatuak iruntsi nabe. Iruntsi betiko!
 OZIAS.—Etzaite olako. Laster gara Jesus'en bidian.
 GOG.—Itxasoaren olatuetara jaurti nagizue erruki barik. Jaurti bil-dur barik!
 RUBEN.—Zure osasunaren alde diardugu, Gog. Etzaite olako buru gogor.
 BAAL.—Etzaite olako gaizto.
 GOG.—Barruan daruadan suaz erre zaitzela egingo dot. Erre ta kixkaldu.
 OZIAS.—Len etziñan olako.
 GOG.—Laga niri! Kendu ortik!
 RUBEN.—Bakia lortuko dozu Jesus'en aurrian.
 GOG.—Nire bakia sua ta gorrotua izango dira. Kendu zaitze! Kendu! Laga!
 BAAL.—Ara... ara... Or dator Jesus, itxuraz.
 OZIAS.—Otoi egiozu berari.
 GOG.—(*Gero ta indartsuago.*) Zoruok alakuok, erreten laga nagizue!
 BAAL.—Begira zenbat jente datorren bere inguruan.
 RUBEN.—Ba dakizu zenbat mirari egin daben. Zu be osatuko zaitu, osatuko zaitu.
 BAAL.—Ara Jesus! Ara Jesus!
 GOG.—Osatu ni? Ja, ja, ja, ja!

(*Tengada gogor bat egin ondoren eurekandik uluka iges egiten dau bizi.*)

RUBEN.—(*Berari jarraituz.*) Gog! Gog! Gog!
 OZIAS.—Etzan gizon, diabru baño.
 BAAL.—Aren indarrak...! Iño!
 RUBEN.—Etziran gizonarenak, diabruarenak baño.
 BAAL.—Iñok osatzekotan Jesus'ek garbituko eban da.
 RUBEN.—Egin doguna baño geyago ezin geinkian beintzat.

OZIAS.—Ara nun datorren Jesus. Pixkat geitxuago eutsi al izan ba'geuntsa, al izan... Auxe da penia!

(Umiak datoz kantari, Hosanna, hosanna! Jantziak zabaldu ta botaten ditue Jesus igaroteko dan bidean. Erramu ta palmas goratzen dabe, antzestokian irauten daben artian. Ume ta gizon inguruan. APOSTOLUAK bidea zabaltzen alegintzen dira, umiak baztertzen. Jesus'ek baketan itxiteko diñotse señakin, umiai lagateko beregana urreratzen. Umiak besarkatuten dauz, lastanez bete, irribarrez inguru guztietara begira. Abeslariak andikiro, altsu, sutsu: "Hosanna! Hosanna..." abestuten diardue, Almandoz'en "Pueri hebraeorum" en zattia. Abestia luzatu bedi irudiaren ikusgarritasuna bizi zaindu leiken artean.)

O Y A L A

II. JERUSALEM

IRAGARLE, JESUS, NOEMI, JONATHAS, ABEL, ISAAK, APOSTOLUAK,
EMAKUME ta ERRITARRAK

Jerusalem inguruan

IRAGARLE.—(*Kantuz. Doñua: "Biotzetik miñez nago".—Azkue.*)
Jerusalem'ko txaloak oraindik ixil barik,
Mendi gañean dago Jesus penatan beraitik.
Zizpuruz beterik Jerusalem gaiztoagaitik.

Gaiztakeritan sartua bizi da erri ori,
Jaunaren kutun izanik lepoa emonaz berari.
Beragaitik dabil Jesus lotuta peniari.

(Oyala zabaltzean egal baten JESUS. Umetxoak bere inguruan. Atzerago Apostolu ta jenteak, aldratan, atsedean artzen.)

NOEMI.—(*Errukiz.*) Zegaitik zagoz ain kezkatu, ain itzal ta illun,
Jesus?

JONATHAS.—Txaloka ta txaloka erabilli zaitugu. Eriñotzik be ez da

geratu osorik bide bazterretan. Zegaitik orain begiak malkoz beterik?

ABEL.—Nik ba neki Jauna zeñek negar eragiten deuntsun...

JONATHAS.—Bai, zera zuk, memelo orrek.

ABEL.—Ostera be? Neuri burletan dabil, Maixua. Neuri irrika egun guztian. Edonok esango leuke onek beronek, zera... eulirik be eleuke ilko ta.

ISAAK.—Ez jaramonik onei, Jesus, beti alkarri tirrika ibiltan bañø eztakie-ta.

APOSTOLU BAT.—Ia txotxo, kendu emendik. Jesusek atsedean artu naiko dau ta ospa emendik, zeuon umekeriak lagata.

ISAAK.—Orrek ostera... beti kendu... kendu... Zelakua da beroi?

JESUS.—Itxi egiozue umetxoei nigaz egoten. Umetxoen biotz garbiak dira nire pozik andien. Ikasi zuek danok be umien antzeko izaten eta biziten. Biotz guztiak umetxo onein lakoak ba lira... (*Astirotsu jaiki ta Jerusalem'eri begira jarten da. Beste guztiak berak zer esango ete daben kezka.*) Jerusalem! Jerusalem! Jaungoikuak maite maite zaitun erri eder ori! Nire Aitak begi begiko zaitun erri zoragarri ori! Lizunkeriak gaindu zaitu; ordikeriak ondatu zaitu! Gorroto ta ikusi eziñak itsutu, arrokeriak puztu zaitu; Jerusalem! Jerusalem! Gaur ba da ere ezagutu al ba zengi bakea zek eta zeñek ekarri leikezun...! Baña itsu itsurik bizi zara. Egun latzak etorriko dira zuretzat. Zure arerioak estutu ta inguratuko zaitue. Zu eta zure semiak birrindu ta esestuko zaitue eta ezta geratuko arri batik be besteren gañean, zure Jaungoikoa ezagutu eztozulako zuregan etorri danian. Jerusalem! Biurtu noiz bait zure begi ta biotzak Jaungoiko Jaunari!

(*Abeslariak Goikoetxearen "Yerusalem" abestuko dabe barrutik.*)

O Y A L A

III. AZKEN APARIA

JESUS, PEDRO, JUAN, ANDRES, SANTIAGO, FELIPE, BARTOLOME,
TOMAS, MATEO, ZEBEDEO, TADEO, SIMON eta JUDAS

Azken apari tokia. Mai luzea. Apostoluak mai inguruan. Eztitsu ta samur egin bedi irudi au. Abestiak gozo ta bigun

IRAGARLE.—(*Oyala zabaldu aurretik. Kantuz. Doña: "Uso, luma gris gaxua".—Salaberri.*)

Apostoluak batuta Maixu onan inguruan,
Pazku eguna ospatzen Jesus'ek nai moduan.
Nok uste euren artian zanik Jaunaren saltzallerik?
Ase ezin, ezin asetu Judas'en biotz zitalik.

Agindu bigun biguna Jaunak zabal emon dauna.
Agindu miraritsua, Jaunak orain emonikua.
Bere inguruan egonagaitik salduko eban laguna,
Jesus'ek berba gozoetan guztiontzat maitasuna.

(*Oyala zabaltzean JESUS Apostoluei oñak garbitzea amaitzen diardu. PEDRO'ren ondora urreratuaz:*)

PEDRO.—Niri ez, Maixua, niri ez!

JESUS.—(*Maitetsu.*) Pedro...!

PEDRO.—Zegaitik, baña, zuk niri oñak garbitu?

JESUS.—Nik egiten dodanaz etzara konturatzen. Urrengo baten igarri ta jakingo dozu.

PEDRO.—Sekula bez zuk niri oñik garbitu, Maixua. Sekula bez. Ez!
Ez! Ezta... ezta... Sekula bez!

JESUS.—Garbitzen ez ba zaitut eztozu nirekin parterik eukiko.

PEDRO.—Ola ba da, ori benetan ba diñozu, ez bakarrik oñak, bai eskuak eta burua be.

JESUS.—Garbi dagonak garbitzea naiko dau, danez garbi dalako. Zuek garbi zagoze... baña ez danok. (*PEDRO'ri oñak garbitzen dautsoz. Mai burua urreratuaz.*) Ba dakizue zuekin zer egin dodan. Maixua deitzen daustazue. Ondo deitu be. Nik, Maixu ta Jauna izanik garbitu ba zaituet, ikasi alkarri bardin egiten. Irakatsi asko emon nai izan dautsuet. Laster dator nire ordua. Laster. Azkenengo kontsejuak emoten nabil, azkenengo aginduak. Laster... Zuetariko batek saldu egingo nau.

(*Apostoluak kezka lotuten dira.*)

MATEO.—Neuk ez beintzat.

PEDRO.—Saldu diñozu? Zegaitik ori?

SANTIAGO.—Saldu? Zelan saldu?

PEDRO.—Zegaitik eztozu argiago itz egiten?

MATEO.—Erakutsi egin biar zenduke zein dan ori. Zeñek saldu zeinke, ba, emen?

PEDRO.—(*JUAN'eri.*) Zeñegaitik diño?

JUAN.—(JESUS'eri.) Zein da ori, Maixua, zein?

JESUS.—Bustiko dodan ogia emoten dautsadana, axe izango da.

(*Astirotsu ogi zati bat busti ta JUDAS'eri emoten jupaten da. Apostoluak kezka...*)

JUDAS.—Ni ete naz ba, Maixua, ni?

JESUS.—Zeuk esan dozu. (*Samur.*) Egin biar dozuna arin egizu.

(*JUDAS JESUS'eri begira geratzen da, lotsaz. Gerotxuago lotsa orrek gainduta, makurtuta, iges egiten dau. Beste Apostoluak zurbilduta lez gelditzen dira, zer egin ezakiela, itsik esateko adore barik. Barrero bere tokira urreratuaz.*) Orain Jaungoikuaren Semia goratua da ta Jaungoiko berbera beragaz. Semetxouk: Pixkabaten zuekin nago. Laster jua biarko naz, laster.

PEDRO.—Nora jun? Geu lagata ez beintzat.

JESUS.—Nuan lekura ezin zeinkie etorri.

PEDRO.—Neu etorri ez?

JESUS.—(*Samur.*) Pedro! Pedro! (*Abestia leun-leun. Maitasun abestia. Haller'en "Cenatibus illis".*) Agindu barri bat emoten dautsuet. Alkar maite egizuela. Neuk maite izan zaituedan lez, zuen artian be maite izan zaiteze. Orretantxe ezagutuko zaitue nire bialduak zariela. Alkarrentzako maitasunean. Bene-benetan nai izan dot gaur Pazko au zuekin igaro.

PEDRO.—Kezkatuta lagaten gaituzu gaur dabizuzan esanekin.

JESUS.—Geyago ezin izango dot Jaunkoiguaren erreinuan sartu arte.

PEDRO.—Zegaitik diarduzu baña gaur ain itzal ta illun berbetan?

JESUS.—(*PEDRO'ren esanei jaramonik egin barik ogia bedeinkatu, zaitu ta danei emoten dautse, astirotsu ta maitasunez.*) Auxe da nire gorputza, zuek aitik eskiñia. Nire oroiz artu egizue beti. (*Kaliza baten ardaua Jaungoikuari eskiñi, ogiaren antzera, bedeinkatu ba bertatik emonaz:*) Kaliza au nire Testamentu barria da. Zuek aitik ixuriko dan nire odolarena... Au egiten dozuenetan, nigaz gogoratu zaiteze beti... beti... (*Danei emon ondoren, ototzean lez lotuten da une baten. Jaiki ta eskuak goruntz jasoaz.*) Eldu da nire ordua. Guazen danok Jaunari eskerrak emonaz.

(*Apostoluak be JESUS'en antzera eskuak goruntz jasoaz lotuten dira. Abestariak andikiro ta sutu "Aintza Jaungoikuari" abestuten ekingo dautse.—P. Bilbao'ren abestia.*)

O Y A L A

IV. GETSEMANI

JESUS, PEDRO, SANTIAGO, JUAN, AINGERUA, JUDAS, MALKO, ERRIZAÑAK,
GIZONAK, ELIAS, TOBIAS eta ISAAK

Getsemani'ko baratzean. Gaua.

IRAGARLE.—(*Oyala zabaldu aurretik, kantuz. Doñua: "Aitak eza Amak"*).—P. Donosti, C. 166.)

Getsemaniko ortuan
Maixua otoitzean,
gure pekatu danen astunez izerditan.
Goiko Jaunaren laguntza nai
garraztasun a kendu al ba zan.
Gauaren illunean
Judas amesetan,
bere Maixua saltzeko tratuetan.
Zapukeri okerragorik
beste batek asman ezin.

(*Oyala zabaltzean abeslariak Victoria'ren "Una hora" abestuten diardue. PEDRO, SANTIAGO eta JUAN, egal baten, lo. Beste aldean JESUS otoitzean. Otoi mintsu, itzal, naigabetsuan.*)

JESUS.—Aita! Aita ona! Dan dana al dozu... dan dana... Urrundu, kendu nigandik eginbiar latz au; baztertu nigandik kaliza garratz au... Baña ez nik nai dodan lez... ez. Ez nik gura neuken lez, zeuk nai dozun lez baño. (*Astirotsu Apostoluak dagozan aldera dua. Maitekor, PEDRO lepoan joaz:*) Simon...! Simon...! Lo? Lo?

PEDRO.—(*Ezin itxarturik.*) Zer ~~Johana~~, zer? Gaba be astuna da ta!

JESUS.—Ordu bete ezin egon zarie esna, itxartuta?

PEDRO.—Jauna! Gaur ibilli be asko egin gara ta!

JESUS.—Zur egon eta erregutu, tentazifoietan sartu etzaitzen. Gogua, arimia, prest dago, Simon, baña aragia, gorputza, gaixo. (*Len otoitzean egon dan tokira dua ta barriro otoi dagi, gero ta kezkatuago. Eskuak goruntz jasoaz:*) Aita...! Aita...!

AINGERUA.—(*Bordes'en "Triste naiz biotzetik" ren doñuaz, abeslari agertzen da.*)

Triste naiz biotzetik,
itzal barrenetik...
Zure Aitaren miña barriz
geyago oraindik.
Maite zaitu iñor maite izanik,
ala dalarik itzalago zure errukiz.

JESUS.—(*Kantuz. Doñua: "O Jesus gurutzera".*—P. Donosti.)

Aitaren bialdua, nigana zetan zatoz orain?
Nire gogua ez ete da Maitasunari ernai?
Garratz eta itzalez arkitzen naiz, Aingerua.
Dar-dar-dar nire gorputza, lerturik nire biotza.

AINGERUA.—Adorez zaitte Jesus

Aitaren aginduz;
gizonaren errukiz ekin,
ez gaindu penekin.
Gizona salbatzekotan dalarik,
zure odolaz izango da bakar bakarrik.

JESUS.

Naizen guztia eskintzeko gertu naz beti.
Aitaren borondatea nigan osotu bedi.
Dakartzun kaliz ortan odol gorritz ikusten naz.
Nire gurariz barik, dana bedi Aitarenaz.

(*Aingerua juaten da.*)

Jauna! Aita! Zure borondatea beti, beti... ta ez nirea.

(*Apostoluékana urreratuaz.*) Ai Simon! Simon! Lo egizue onez-
kero. Lo egin ta atsedean. Ordua eldu da. Gizonaren Semia pekatarien
eskuetan saldua dala ikusi egizue.

PEDRO.—Zer diñozu, Jauna, zer?

JUAN.—Ze pasaten da, Maixua?

JESUS.—Altza... yagi. Ara nun datorren ni salduko nabena. Ara
bertan.

(*Apostoluak altzaten dira bildurrez. JUDAS, MALKO, ELIAS,
TOBIAS, ERRIZANAÑAK eta GIZONAK sartzen dira.*)

JUDAS.—(*Belarrira, MALKO'ri.*) Nik besarkatuten dodana, axe izan-
go da.

MALKO.—Or dagon ori da?

JUDAS.—Ixo! Nik besarkatuten dodana.

PEDRO.—Ene ba da!

JUAN.—Zein dira oneik?

SANTIAGO.—Zetan datoz?

JUAN.—Judas ez da ba ori, Judas?

JUDAS.—(*Belarrira.*) Laster gero, laster. (JESUS'eri.) Maixua!

JESUS.—(*Bigun.*) Ai adiskide! Zetan zatoz? Judas! Musu bategaz salduko dozu gizonaren semia? (*Gizonei.*) Zeñen billa zatoze?

GUZTIAK.—Nazaret'eko Jesus.

JESUS.—(*Adoretsu.*) Neu naz. (*Ori entzutean danak bildurrez atzeratzen dira.*) Zein nai dozue, zein?

GUZTIAK.—Nazaret'ko Jesus.

JESUS.—Esan dautsuet neu nazala. Nire billa ha zabize laga onei euren bidian.

PEDRO.—Jauna, nora gu?

JUAN.—Gu zeu lagata?

PEDRO.—Ez nire ezpatak indarrik ba dau.

(*Asarre MALKO joten dau ezpatiagaz. Onek belarririk odola ikustean berotzen agertu bedi.*)

JESUS.—(*Zoli.*) Pedro! Gorde egizu ezpata ori bere tokian. Uste dozu, nai izan ezkerro, nire aitak aingeru talderik eleukela bialduko danok birrinduteko?

MALKO.—(PEDRO'ri.) Ezpatiagaz niri lotsagalduko orrek? (*Jarki ondoren Apostoluak iges egiten dabe. ISAAK sartzen da ikus miñez.*) Auxe be eurretarra da. Kolpe berari. Eutsi.

(*Errizain bat tengadaka asten jako, baña iges egiten dautso ISAAK'ek esanaz.*)

ISAAK.—Ni? Nik zer egin dot ba? (*Igeska dua.*)

(*ELIAS eta TOBIAS'ek Errizainei JESUS lotzeko agintzen dautse. ELIAS'ek JUDAS'eri diru boltsia emoten dautsa. Abeslariak Victoria'ren "Judas mercator" abestuten asiko dira.*)

JESUS.—Lapurra ba nitz lez etorri zarie nire billa ezpata ta guzti. Egunero egon izan zan eleizan zueri irakasten. Baketan lagaten zeusten orduan. Baña auxe da zuen ordua. Zuena eta... (JUDAS'eri *begiratu*) gaiztakeriarena.

(*JUDAS'ek lotsatuta, JESUS berari begira ikustean, diru boltsia jaurti egiten dau... ta igeska asi.*)

O Y A L A

V. JUDAS

Egilleak : IRAGARLE, ELEAZAR, NOEMI, ABEL, JONATHAS, ISAAK, JUDAS,
ZEKEN, JEREMIAS

*Irudia: Urkamendian. Arbola banakak egaletan. JUDAS arbola batetik
zintzilik dago, urkatuta*

IRAGARLE.—(*Kantuz Doña: “Iruñako ferietan”.*)

Judas'entzat okerreña Jesus'en maitetasuna;
beretzako mintsuena bere adiskidetasuna.
Origaitik bere lotsan arbolatik urkatu zan.

Ibilli zan bide onetan Jesus'ekin batean;
urre garrez ase eziñik jausi zan diru-erpetan.
Dana galdu azkenian bere zoritxarrean.

MUTILTZOAK.—(*Oyala zabaltzean, bidez bide datozela, JUDAS ikusten
dabe ta ikaraz beterik:*)

BATEK.—(*Kantuz.*) Ene! Ene! Zein da emen arbolatik zintzilik?
Ete da ba gaizkillia edo buruz galdua?
bata dala nai bestia errukarri gaixua.

BATEK. Ezagutzen? Konturatzen? Judas diru zalea!
Gure begiak ezin sinistu ikusten daben kaltea!
Zeiñek ete dautsa argitu rozitxarren atea?

GUZTIAK. Oi arlote, Ixkariote, diru zale zekena.
Diru txanponen egarriaz ase eziñez bizitzan.
Zetarako zure diruak? Zetarako dan danak?

ELEAZAR.—(*Ikaraz.*) Judas! Judas...!

ABEL.—Lapurren batek ez ete dau il berau?

NOEMI.—Jesus'eri deituko dautsagu?

ELEAZAR.—Jesus'ek artuko daben penia!

JONATHAS.—Len be aspaldion negarrez ibilten ba daki arek.

ABEL.—Dardaraka nago.

JONATHAS.—Orain be bildurretan memelo ori?

NOEMI.—Zeren bildur?

ABEL.—(JONATHAS'eri) Barriro be? Neu ez ipifi gero...!

ELEAZAR.—Ni neu be ba...

NOEMI.—Jesus'ek osatu egin lei. Ildakoak biztuten ez daki ba?

JONATHAS.—Orrek miñen bat ez ete dau euki?

ABEL.—Bai, zereko miñia.

ELEAZAR.—Zegaitik ez?

NOEMI.—Lapurren batek il egingo eban, dirua ostutearren edo.

ISAAK.—Berori be beti diru billan-ta... Zekenago zan zekenago...

NOEMI.—Billatu egin biar genduke Jesus.

JONATHAS.—Nun billatu?

ISAAK.—Eskuak lotuta eruan eben atzo. Neuk ikusi neban.

ELEAZAR.—Nora? Zeñek?

ABEL.—Ez egizu guzurrik asmau.

ISAAK.—Noiz atrapa nazu guzurretan ori esateko?

ABEL.—Noiz? Kontaten asiko ba nitz...

ISAAK.—Tira ixilik, sakatzak ataratia nai ez ba dozu. Guzurtia ni? Ni?

ABEL.—Gu danok be biribillak botaten asi ezkerero...

JONATHAS.—Danok? Niregaitik etzara jardungo kontixu, ezta?

ABEL.—Sekula guzurrik etzozu esan, ala?

JONATHAS.—(Asarre, ABEL'eri zapartadaka asteko eran.) Errepatxi!
Niri be bai?

NOEMI.—(ABEL'eri sakadaka.) Ala, ospa emendik Jesus'en billa.
Bixkor gero. Bakarrik gañera.

ABEL.—Ni? Ni?

NOEMI.—Arin be arin jun be, gure laguna izaten jarraitu gura ba dozu.

ABEL.—(Urten aurretik.) Ikusiko dozue gure txabola onduan bakarrik atrapatzen zaituedanian. Amak be etzaitue salbako ba! (Juiten da.)

ELEAZAR.—Nun ikusi zendun ba Jesus?

ISAAK.—Getsemaniko ortuan. Lotuta eruan eben.

ELEAZAR.—Apostoluak nun ziran ba?

ISAAK.—Nik eztakit. Igeska ikusi nituzan.

NOEMI.—Judas be bai?

ISAAK.—Judas bertan geratu zan.

ELEAZAR.—Zetan? Bakarrik?

ISAAK.—Nik eztakit. Jesus neuk ikusi neban miñez beterik eta entzun be bai berari, orreri esaten: Judas! Musu (laztan) bategaz salduko nazu?

NOEMI.—Ia gero orrek Jesus'en Aitaren zigorra artu daben.

ELEAZAR.—Zegaitik zigorra?

JONATHAS.—(*Kanpora begira.*) Or dator Abel, arin be arin.

NOEMI.—Arnasa be galdu egingo dau orrek, beti itsumustuan, dabilen bildurraz.

ABEL.—(*Kezkati sartzen da.*) Diabrua ikusi dot, diabrua, diabrua!

ELEAZAR.—Nungo diabrua? Orixe da ikara ta bildurra.

ABEL.—Diabrua bai! Dantzan ikusi dot, zaratatsu bere bosteko jardunean ta barre algaraka.

ISAAC.—Zeure keixiagaz bildurtuta?

JONATHAS.—Zorotasunak darabizuz zuk, zoro aiziak.

ABEL.—Bere bostian didarrez ebillan: Judas! Judas! Atso txin txin, gaur zintzil.

ISAAC.—Diabruak urkatu dau orrela ba da.

NOEMI.—Zer dauka ze ikusi diabruak?

ELEAZAR.—Euki ez?

ABEL.—(*Kanpora begira.*) Ara! Ara! Begiratu! Ikusi...! (*Bizi bizi igeska.*) Neu enau aatrapauko beintzat!

GUZTIAK.—(*Igeska.*) Neu bez...! Neu bez...!

(Mutiltxo guztiak iges egin ondoren, egaletan ikusmin ezagutuko dira. ZEKEN-DEMONIÑUA sartzen da dantzari. Judas'en inguruan burlaz eta isekaz dantzaldi bat egingo dau, bere poza erakutsiaz. Dantzaldia amaitueran JEREMIAS agertuko da. Zuri zuri jantzita dator, iragarle zar-zar antzera. Bera ikustean, bere didarra entzutean, ZEKEN makur makur eginda ezkutauko da.)

JEREMIAS.—(*Zaratatsu ta andikiro.*) Kanpora! Kanporaaa...!!

(Erdi aldera begira.)

Ni naz Jaungoikuaren abotsa.

Mundua mundu danetik egia erakusten nabillen Jaungoiko altsuaren didarra.

Eguzkiaren azpian egiten danaren barri zigur zigur dakit.

Moises'en ondoren nabil Jaungoiko altsuaren maitasuna erakutsi ta gizonen okerrak zuzendu guraz.

Gorrotoz beterik dira erriak. Ikusi ezifiez garraturik begiak. Asarre zitalez ustelduta biotzak.

Entzun gizonak eta andrak. Entzun batez be oraindik garbi garbi bizi zarien umetxoak!

Ez alargunik mindu! Ez umezurtzik baztertu! Ez erbestekorik esetsi. Ez beartsu ta ezeukirik erruki barik itxi.

Iñok ez begi here biotzean anaien aurkako gorrotorik biztu,

Ez aberastasunik geyegi maitatu. Eta batez be, aberastasuren garrez itsututa, ez Jaungoikorik aztu ta saldu.

Gizonak eta andrak! Jaungoikuaren Semia saldua izan da, baña bere odola inakiten agertuko da munduz mundu.
Bere saltzallea, urkatuta, ustelduta ezagutuko da, ikasi dagizuen urrearen argitasun eta beroaz barik, Jaungoikuaren argitasunpean ibilli, indartu eta biziten!

(*Askenengo zati oneik esaten diarduan artian, MUTIL-
TXOAK bere ondora urreratzen igarriko dira ikusmin eta jakinmiñez.*)

O Y A L A

VI. PILATOS'EN ETXIAN

PILATOS, P. EMAZTIA, JESUS, ERRIZAIÑAK, TOBIAS, ELIAS, ERRITARRAK

Pilatosen etxia. Aurrez aurre kale zati bat

IRAGARLE.—(*Oyala zabaldu aurretik, kantuz. Doña: "Txori kantatzailea".*—Bordes.)

Etixerik etxe darabille Jesus maitea lotuta,
judearrak bere burua eskatuten itsututa,
ez errurik, ez okerrik beragan billatuarren
ilteko garrez eskatzen.

Pilatosen etxe buruan judearrak orruka,
beretzako gaizkillien kurutze bat oyuka;
Pilatosen ikusiarren erruge dala Jesus,
errian didarra entzun.

(*Oyala zabaltzean PILATOS'EN EMAZTIA kantari da, PILATOS bigundu nairik. Doña: "Ermitatxo bat eidazu".*)

P. EMAZTIA.—Neure Pilatos kutun on ona,
nire maitetxu lerdena,
zetan olako buruaustetan,
zetan ainbeste kezketan?
Biotz gaiztoak olakoetan
agertzen dira garretan.
Didar ankerrei ez jaramonik,
zorakeririk ez egin.

Zure andrian kontseju ona
biotzez garbi diñona:
arren entzuixu, entzun gogo onez,
damuz etzaiten naigabez.
Jesus orretan ez da okerrik
ez ifiolako errurik.
Baketan laga bere bidean
guzti-guztion onean.

PILATOS.—Itxi eidazu baketan zeuk, baketan laga.

P. EMAZTIA.—Gau guztian amesetan ibilli naz, Pilatos.

PILATOS.—Gaur? Ta noiz ez? Ames baño besterik egiten ete dozu?

P. EMAZTIA.—Betiko zorakeriekin zabiz. Zartu ta igartu nazenian olako destañez beteten nazu aspaldi. Len etziñan nigaz olako, len.

PILATOS.—Len, orain eta beti.

P. EMAZTIA.—Dana dala, Jesus orregaz kontuz ibilli. Beragan gizon utsa ez dan zerbait dagola agirian dago. Zer egin dau gizon orrek erritar zoruok orrela jarduteko?

PILATOS.—Ni-neuk ba dakit zelan jokatu. Zeure zeregiñetara jua zaite.

P. EMAZTIA.—Zegaitik ames egin ete dot nik gizon ori errugabia dala?

PILATOS.—Beste ames askoren barri ba ete dakizu?

P. EMAZTIA.—Bein ba da be entzun egidazu. Zoro asko dabiz munduan, zoro asko. Nastau nai zaitube. Orrek eztauka olako itxurarik.

PILATOS.—Amaika ba gabiz gu burua nun dogun eztakigula.

P. EMAZTIA.—Nigaitik diñozu ori?

PILATOS.—*Ba gabiz*, esan dot.

P. EMAZTIA.—Gaur asarre eguna dozu, ezta? Zeure musturrok erakutsi nai dozunari. Baña gizon orrek burukomifiik ez daitzula emon. Entzun zer diñotzun zeure emazte... txotxiñak. (*Juaten da.*)

PILATOS.—Zuk baño obeto dakit nik emen gauza garbirik ez danik. Eta txarrena, zer egin jakin ez. (*Txaloka dei egiñaz.*) Ekarri egizue Jesus ori. (*Errizaiñak JESUS ekarten dabe. Kale aldetik TOBIAS, ELIAS eta ERRITARRAK agertuko dira. JESUS'eri.*) Judearren errege zara orduan?

JESUS.—Zeure bostian diñozu ori ala beste batzuk esan dautzue?

PILATOS.—Judearra ete naz ba ni? Zure erritarrak eta eleiz gizonak ekarri zaitue ona. Zer egin dozu?

JESUS.—Nire erreinua ez da mundu onetakua. Emengua ba litz nire ordezkariak alegiñak alegin egingo zituen judearren aurrera ni ez ekarteko. Baña nire erreinua ez da emengua.

PILATOS.—Errege zara benetan?

JESUS.—Zeuk diñozu errege nazela.

ELIAS.—Entzuten zer difion?

PILATOS.—Ixi!

JESUS.—Ni egia erakustera etorri naz mundura. Orretantxe bakarrik.

Egiagaz dabilienak nire esana entzuten dau.

TOBIAS.—Etzenduke entzun be egin biar olako guzurrik.

PILATOS.—Ixilik, mesedez. Egia zer da?

ELIAS.—Zetarako autuetan berari lagundu?

PILATOS.—Nik ez dot errurik billatzen beragan.

TOBIAS.—Zek itsututen zaitu ainbestetan?

ELIAS.—Guzurtia da.

TOBIAS.—Gaizkillea da. Lapurra.

ELIAS.—Errege dala diño, errege. Nungo errege?

(PILATOS'ek eurei jaramonik egin barik leyora urteten dau ta erritarrei didarrez.)

PILATOS.—Zer nai dozue egin daidala?

ERRITARRAK.—(Kantuz, Dubois'en "Reus est mortis"-en eresiaz.)

Kurutzean il! Kurutzean il!

Josi! Josi! Kurutzean josi!

PILATOS.—Zegaitik kurutzetu? Zer dala ta?

ERRITARRAK.—(Kantuz.) Kurutzean il! Kurutzean il!

Erun! Erun! Kurutzera erun!

PILATOS.—Pazkotarako, oitura danez, gaizkille bat libre laga neiketue.

Or dozue Barrabas, danok bildurrez ibilli zaituena. Jesus ala Barrabas nai dozue libre lagatia?

ERRITARRAK.—(Kantuz.) Barrabas'ei laga! Barrabas'ei laga!

Jesus! Jesus! Kurutzetu Jesus!

PILATOS.—(Bere artean, minduta.) Barrabas!! (Erritarrei.) Pentsau ondo. Jesus ala Barrabas?

ERRITARRAK.—(Kantuz.) Barrabas'ei laga! Barrabas'ei laga!

Jesus josi! Kurutzean josi!

PILATOS.—(Errizañei, asarre.) Eruan barrura ta zigorrez bete egizue ta arantzazko koroia buruan ipiñi... Judearren errege oneri. (Bere artean.) Ia erri au orrela biguntzen ete dan.

(Errizaiñak JESUS barrura eruaten dabe. PILATOS batetik bestera buruastetan dabil, egon eziñez.)

ELIAS.—Ezin zeinke gizon oneri baketan laga.
 TOBIAS.—Entzun dozu erri osuak ze eskatzen dabene.
 ELIAS.—Erriaren agintari zariala konturatu.
 TOBIAS.—Guzurti lez agertu da, Jaungoikuaren aurkako guzurrez.
 ELIAS.—Jaungoikuaren aurka dabil beti, kalia, eleizan eta zeure aurrian be bai.
 TOBIAS.—Errege dala diño. Nundik norako errege?
 ELIAS.—Zesar nun lagaten dau orrek, gure Zesar?
 TOBIAS.—Orrek Zesar'entzako menpetasunik ez dau agertu nai.
 ELIAS.—Zitalkeria ta sorginkeria baño ez dau erabilli gaixo ta goseri batzuk bere alde jarteko.
 TOBIAS.—Bere alde ta danon aurka.
 PILATOS.—Ixilik egon zaiteze, mesedez. Enagizue berotu.
 ELIAS.—Entzun dozu zer esan dabene.
 TOBIAS.—Ezin zeinke esan zeuk, zeuk entzun ez dozunik.
 ELIAS.—Zegaitik erabagi bat artu nai ez?
 TOBIAS.—Jaungoikuaren Seme dala diño, Jaungoikuaren Seme.
 ELIAS.—Eztakizu pekatu ori legeak ze eratan zigortzen dabene?

(JESUS agertzen da errizaiñen artian. Arantzazko koroia dakar buruan. Tunika gorria lepoan.)

PILATOS.—(Leyotik erritarrei.) Zeuon aurrera ekarriko dautsuet ikusi dagizuen errurik ez daukala. Ara emen gizona!
 ERRITARRAK.—Guk legia dogu ta lege ori beteaz il egin bear da. II! II!
 PILATOS.—Nungua zara? (JESUS ixilik.) Zegaitik ez daustazu berbarik egiten? Eztakizu kurutzetu zeinkezana?
 JESUS.—Goitik artu ezik etzenduke aginpiderik. Zugana ekarri nabenak pekatu andiago egiten dau.
 ELIAS.—Ointxe bertan geure aurka diardu.
 TOBIAS.—Ez ete da naiko orixe berori bein beragaz amaitzeko?
 PILATOS.—(Erritarrei.) Gizonak! Pentsau egizue...
 ERRITARRAK.—Ez dogu nai berba gozorik! Kurutzetu!

(Kantuz.) Kurutzean il! Kurutzean il!
 Josi! Josi! Kurutzean josi!

PILATOS.—Zegaitik baño? Zer dala ta?
 ERRITARRAK.—Jaungoikozko pekatu egin dau. II! II!

(Kantuz.) Kurutzean il! Kurutzean il!
 Erun! Erun! Kurutzera erun!

PILATOS.—Zuen erregea kurutzetu?

ERRITARRAK.—(*Kantuz.*) Kurutzean josi! Kurutzean josi!
Josi! Josi! Josi!

PILATOS.—Zer da beragan orretarako? Zer billatzen dautsazue?

ERRITARRAK.—(*Kantuz.*)

Bere odola jausi bedi
gure ta semien gain,
Kurutzean il! Kurutzean il!
Josi! Josi! Josi!

(PILATOS'ek burua makurtzen dau zer egin estakiala.)

O Y A L A

VII. JERUSALEM'GO ALABAK

JESUS, MADALENA, M. JAKOBA, MARIA, SALOME ta beste EMAKUME
ta ERRIZAIÑAK

*Kalbarioko bidean. JESUS kurutze azpian jausita dago. EMAKUMEAK
errukiz dira. ERRIZAIÑAK euren ondoan, JESUS'en ondora
urreratzea eragozten*

IRAGARLE.—(*Oyala sabaldu aurretik. Doñua: "Agur, oi izar maitia".*)

Kurutze astuna lepuan,
odola gorputz osuan,
Kalbarioko mendi gañera
ba darue Jesus ona.
Astun dalarik kurutzia
geyago bere penia.
Aurrez aurre dauka ama,
bere amatxo laztana,
malko ta intziriz, miñez beterik
berari lagundu nairik.
Jerusalengo andra bigunak
zotinka lertuaz muñiak.

JESUS.—(*Oyala zabaltzean, penaz beterik emakumiei begira. Doñua:*
“Pekatarì tristea...”)

⊗ Ez negar niregaitik
Jerusalem'go alabak,
gizonen pekatuakaitik
egin beti negar.

EMAKUMEAK.—Kalbariko bidean
odoletan ta oñazez,
Zu orrela ikustean
zelan guk negarrik ez?
Oi Jesus, guk al ba gendu
zugaitik zerbait egin,
laster ziñake arindu
zure atsekabe orreikin.

JESUS. ⊗ Borondate oneko
andra errukiorrak
eizuez zorioneko
munduko gizonak.

EMAKUMIAK.—Jesus, Zure nekaldian
odolaren txipristiñak
izango dira guregan
oroigarririk kutunenak.
Sendo eutsi zure bidean,
aurrera gogoz ta adorez,
Golgota'ko tontorrean
izango gara zure aurrez.

ERRIZAIN BATEK.—Naikua da. Arrera.

JESUS.—Zugaitik Aita eta gizonakaitik. Zure borondatea egin bedi.
Zure borondatea beti...

(*Nekez kurutzea artu ta ozta-ozta bere bidean asten da.*)

O Y A L A

VIII. KURUTZEAN

JESUS, MARIA, M. KLEOFAS, MADALENA, JUAN, RUBEN, BOOZ,
JOSUE eta NOE (errizaiñak)

Golgota tontorrean. JESUS kurutzean, il eziñik. Bere oñetan
emakumeak eta JUAN

IRAGARLE.—(*Oyala sabaldu aurretik. Doña: "Arboletan dan ederrrena".—A. Donosti. C. 109.*)

Kurutzetikan dindilizka
Jesus maitea, esturik;
bere oñetan zizpuruka
andra koitadak mindurik.
Ama ta Seme alkarturik
kurutze baten, tristerik.
Erri guztia zarataka
Jesus onari txistuka,
biotz gogorrek garraxika
ezin baketan lagata,
Jaungoiko Seme maitetsuai
bakez iltzen ez laga nai.

(*Oyala zabaltzean abeslariak Valdes'en "Vinea mea" abestuten ariko dira. JESUS kurutzean larri, estu, egon eziñez. Emakumeak zizpuruka negarrez.*)

—pur gant. l. denik fusk, l. denik fusk dauk.

RUBEN.—(*Beste iru errizainekin batera sartuaz.*) Bestiak salbaten ez ekian, ba?

BOOZ.—Amesak ugari orrek, amesak.

RUBEN.—Bere burua salbau dagiala, al ba dau... Kristo baldin ba da... Jaunak autua ba da... esaten eban lez.

BOOZ.—Nun dira orain bere arrokeriak?

JOSUE.—Mirariak egiten ba ekian ba!

NOE.—Ori beintzat geuk ikusi genduan.

RUBEN.—Ba! Ez egizue sinistu olakorik. Zegaitik ez dau beretzako egiten?

JOSUE.—Zerbait eukanik ezin ukatu.

RUBEN.—Atsoen eta gaixoen zorakeriak. Arrokeria ibilli dau orrek, arrokeria.

BOOZ.—Orixe bai gero!

RUBEN.—Lekutan dago ointxe zerbait egiteko, berak esaten eban indarra ta Jaungoikotasuna ba dau.

MARIA.—Gizonen destain oneik bere intziriak eta estualdiak baño geyago minduten nabe.

JUAN.—Ez egiezu jaramonik egin, Mari.

MARIA.—Nayago neuke ezpata zorrotz bat biotzian, eurak entzun baño.

—pur gant RUBEN.—Ia, ia! Jaungoikuaren etxia austu ta irugarren egunerako barriztauteko al etziñan ba?

JOSUE.—Ori baño errezago zeinke orain. Salbau zeure burua!
 BOOZ.—Jaungoikoaren Semia ba zara, eratsi, eratsi kurutze orretatik.
 RUBEN.—Eratsi! Eratsi! Orduntxe sinistuko dogu egia esaten zendula.
 MADALENA.—Naikua da. Il nai ba dozue be, laga egiozue baketan ilten
 JOSUE.—Ixilik egon zaitetz, ixilik egon zeure tokian.
 RUBEN.—Ezagutuko ez ba gendu berori nor izan dan.
 MADALENA.—Zer nitzan ardurarik ez egizue. Zer zarien kontu euki,
 zer zarien.
 M. KLEOFAS.—Bakerik ez eiguzue ukatu gizonak, bakerik, ez ukatu
 beintzat.
 JUAN.—Gaur ez dira gizon, basapizti baño. Ez jaramonik be egin.
 BOOZ.—(JESUS'eri.) Demoniuaren Seme izan zara ta ez Jaungoikuaren Seme!
 JUAN.—Bere amaren aurrean etzaitetze, mesedez, orrela jardun.
 BOOZ.—Ama? Ta zer? Guzurti baten ama da.
 MADALENA.—Nok esan leike guzurtia zanik?
 RUBEN.—Nok? Jaungoiko zala, altsua zala, errege zala, mirariak
 egiten ekiala... Nun dira bere al izateok? Esana bat eta izana bi.
 BOOZ.—Zegaitik ez dau ointxe agertzen zerbait, zerbait bakarrik,
 esaten ebana egiztuteko?
 JESUS.—(Didarrez.) Aita...! Nire Jaungoikua...! Zegaitik laga nazu
 bakarrik.
 RUBEN.—Eztozue entzuten? Aitak laga egin dabela, bakarrik itxi
 dabela. Ja, ja, ja! Laga! Bakarrik itxi...!
 BOOZ.—Bere Semia izan ba litz, esaten eban lez...
 MARIA.—Ezin zeinkie ukatu ala danik. Bere ama nazenez ondo dakit
 zelan sortua zan.
 RUBEN.—Koitadia! Zuk eta berak, berak eta zuk, biok il biar zen-
 duen bardin, Jaungoikuaren kontra herba egin dozuelako.
 JUAN.—Kurutzean noiz ilko dagoanaren erruki ez ba zarie be, laga
 baketan, baketan itxi mesedez miñez min dagoan ama oneri.
 MADALENA.—Amarik eztaukazuela esan lei.
 BOOZ.—Ixildu zaitetz.
 JESUS.—(Larri.) Egarrri naz.
 RUBEN.—Egarririk be kentzen ez dakian Jaungoikua. Jaungoikua...!
 BOOZ.—Ori be ezin, ori be? Zetarako dozu Jordan'go errekia, zeta-
 rako, dan dana al ba dozu, esaten zendun lez?
 MARIA.—Al ba neu Jesus kutuna, al ba neu Seme...! Adoretu zaitte!
 NOE.—(JOSUE'ri.) Emoizu emon ozpin pixkat. Berak ezin dabena
 emon, erregetxu orreri. (JOSUE'k *kañabera baten luzatuten dautsa.*)
 BOOZ.—Etzendun esaten ba ardaux pixka bategaz bost millari edaten
 emon zeuntsala?
 NOE.—Ointxe nai genduke ikusi olako bat ointxe.

MADALENA.—Zelan izan daike gizon batek ain biotz zital ta gogor?

Gizonak etzarie zuek, demoniñuak baño.

MARIA.—Parkatu egiezue, Jesus!

JESUS.—(*Larri, larri.*) Dana... amaitu... da.

MARIA.—Zer, Seme, zer? Zer diñozu? Zer nai dozu?

JUAN.—Jesus, ez gure kezkarik. Jesus...! Jesus...!

JESUS.—Aita! Zure eskuetan lagaten dot nire gogua!

(*Garraxi luze bat egin ondoren, burua makurtuz ilten da.*)

MARIA.—Ene bada! Jesus! Seme! Laztana! II! II! (KLEOFAS eta MADALENA'ren eskuetan jausten da. Emekumeak negarrez geratzen dira, zotinka.) Abeslariak bigun bigun Dubois'en "Adoramus Te Christe" abetuko dabe:

ABESLARIAK.—Kurutze ortan Jesus
gure esker ona artu.
Zure eriotzaren bidez
gaituzu askatu...
Eskerrak Zuri, Kristo.

O Y A L A

IX. BAKARTADEAN

JESUS, MARIA, MADALENA, KLEOFAS, SALOME ta JAKOBA

Golgota tontorrean, Kurutzepean. JESUS'en gorputza izara batekin estaldua da, lurrean. Bere ondoan, negarti ta mintsu, MARIA

IRAGARLE.—(*Oyala sabaldu aurretik kantuz. Doña: "Arboletan dan ederre".*)

Gaizkille danak iges einda kurutzepian Amatxo.
Seme ederra lurran gañean odolez usturik dauko.
Izara zurin estalpean maitez begiratzen dautso.

Lur ikaraz ikaratuta errizaiñak iges dabe.
Bakar bakarrik geratu da bere ama atsekabez.
Mundu guztian ezin billatu beste ainbeste naigabe.

(*Abeslariak, bigun eta samur, "Bai, illik dago Jauna", erritar abestia kantaten.*)

MARIA.—(JESUS'en inguruan, negarti.) Ai Seme kutuna! Neure biotza!
Ikusi barik ezin sinistu zure eriotzia! Norberak bizi ezik ezin igarri
zenbaterafiokoa dan gorrotoaren indarra. Jesus...! Neure Jesus...!

(MADALENA, SALOME, JAKOBA ta KLEOFAS sartzen dira.
MADALENA'k bigunki besarkatuten dan MARIA.)

Ai Malen! Eskerrak zuri. Eskerrak benetan, Jesus ezagutu zendu-
netik maitasuna ta zintzotasuna erakutsi dautsazuzalako. Guzti-
guztiak zure antzera jokatu izan ba lebe... semerik ez eusten
ilgo, ez...! ez...! Ez eben kurutzetuko!

MADALENA.—Ettxeratu egin biar zifñake, Mari.

SALOME.—Geuk egingo dogu Jesus'egaz egin biar dan guztia.

KLEOFAS.—Onezkero lertuta egongo zara.

JAKOBA.—Bai Mari, bai, etxeratu zaite.

SALOME.—Jesus'egaz egin danak eztauka zuzenbiderik.

MARIA.—Ez! Nik ezin nei nire semiagandik urrundu, bere zeregiña
ta nirea bardiñak diralako gizonen alde. Jakin dagiela munduan
izango diranak, berak Jaungoiko Aitaren borondatea beteaz gizo-
nak odolez erosi biarra izan ba dau, nik be neure biotza odoletan
urratuta dodala, nik be Jesus'en zeregin berbera dodalako gizonen
aldez. (*Andiriko jaiki eta samur ta malkoz jenteari begira, kantuz:*)

Bidez bide ibil zaren guztiok,
begiratu ta ikusi
nun ete dan nire miña lakorik.

Nire Jaunak itxi nau negarpian,
betirako samintasunpian.
Ez deitu niri Eztitsu,
Baizik deitu Samintsu.

Bidez bide ibil zaren guztiok...

(*Negarrari eutsi ezinik, JESUS'en ondora jausten da.*)

O Y A L A

X. ALLELUIA

IRAGARLE, ERRIZAIÑAK, MADALENA, KLEOFAS, JAKOBA, SALOME,
AINGERUA, PEDRO, JUAN, JESUS, APOSTOLUAK,
MUTILTXOAK, ERRITARRAK

Illobiaren aurrean

IRAGARLE.—(*Oyala zabaldu aurretik. Kantuz. Doñua: "Chori eresiñula".*)

Aingerutxoak zerutik pozaren poz kantari,
biztuera adieraziz negarrez direnari.
Munduak ezin aztu bere aldezko opari,
Jesus'ek emoniko ainbeste poz sari.

Jesus'en biztuera antxiña iragarria,
irugarren egunera zala adierazia,
bedi orain ta beti biotzen bake iturria,
betiraun guztietan poz eta grazia.

(*Oyala zabaldueran illobi aurrean ERRIZAIN bi zaindari.
Beste bi egal baten dagoz. Abeslariak barrutik, Bach'en
Mateo Deunaren Nekaldiko azken abestia abestuten diardue:*)

ABESLARIAK.—Negar uluz, miñez beterik,
deyez gaukazuz obira:
Bizi bakez, bizi bake baketan.

Lo zaurien miñetatik...

Bizi bakez,
bizi bake baketan.

Zure illobi deunak
lotsatu begiz
gogo argalak
ta biotz zindoak
bakez ase bēdiz.

Begiok, betiko,
zугan ames begie...

(MADALENA, SALOME, JAKOBA ta KLEOFAS sartzen dire.)

MADALENA.—Jesus garbitzen gatoz, bera enbaltsamaten.

RUBEN.—Ezin lei. Guk agindua bete biar dogu.

KLEOFAS.—Etzaitze olako izan.

SALOME.—Ba dakizue zuek andiagotan be ez ikusi egiten.

BOOZ.—Agindua agindu.

MADALENA.—Nok jakingo dau laga dauskuzuenik?

SALOME.—Ildako baten bildur zarie?

JAKOBA.—Tira, tira... Lagundu egiguzue arri au altzaten.

MADALENA.—Geuk bakarrik ez ete dogu jasoko?

BOOZ.—(*Garrats.*) Urreratu be ez egiteko!

KLEOFAS.—Sekula ikusi dozue ildako bateri errizaiñak ipinten zaindari?

MADALENA.—Zegaitik ori?

SALOME.—Zeren bildur zarie? Il ondoren eztozue sartu ba?

MADALENA.—Illa illa da. Mesedez itxi azkenengo begirakada bat berari egiten.

KLEOFAS.—Etzaitzeze olako setatsu ta oker.

JOSUE.—Ixilik ez ba zagoze...

SALOME.—Iñok ez dau jakingo. Ez orren kezkarik.

NOE.—(*RUBEN'eri.*) Etzaitz andrakin kopletan ibilli, bestela nastauko zaitue-ta.

KLEOFAS.—Eztogu bere gorputzik iñora eruango beintzat.

NOE.—Alperrik zabizela andrak, alperrik.

BOOZ.—Gu emen garian bitartian ez alperrik jardun.

MADALENA.—Beste edozein, lapurrik andiena izanda be, ikusi, igortzi, maitatu, jantzi, musuz jateko eragozpenik ez da egoten.

RUBEN.—Agindua agindu dala ta ixilik.

MADALENA.—Zegaitik erru barik gizonik okerreña lez kurutzian il dozuen Jesus onen erruki izaten debekatu?

JAKOBA.—Jesus onegaz eztozuez beste bi il? Iñor ipiñi dozue eurak zaintzen?

BOOZ.—Barriketarik naiko entzun dogu ta jun zaitzeze emendik.

MADALENA.—Areik lapurrak ziran. Lapur andiak, Erri guztia bildurtuta euen. Eta euren gorputzak laztanduten, eurak biar dan lez gordeten edozein juañ ba lei, zegaitik Jesus'egaz bardin egin ez? Zegaitik ez?

KLEOFAS.—Zeri dautsazue olako bildurra, zeri?

BOOZ.—Enagizue berotu andrak gauza txarrik egin ez daidan.

(Argi txinpartak bizi bizi. Trumoi otsa, Lur ikara. Errizaiñak lurrera jausten dira bildurrez eta ikaraz. AINGERUA agertzen da ta illobiko arria bastertu egin ondoren, illobi egalian jarten da, dardaraz eta alkarri elduta kezkatu diran emakumiei kantuz esaten:)

AINGERUA.—(*Kantuz. Doñua: "Dugun orok kanta". "Kantikak" 311.*)
Ez ikaratu andra onak,

miraria egiña da,
garaiturik eriotza
biztu da Jesus Jainkoa.

EMAKUMEAK.—Zer diñozu aingerua?
Zelan dala biztu Jauna?
Ezin sinistu gure begiak
ikusi ezik ber bera.

AINGERUA. Aurreko illobi onetan
bakizue sartu ebela,
kezkarik gabe begira
Jaunik ba ete dan bertan.

EMAKUMEAK.—Daigun danok pozik kanta
miraririk andiena,
alleluia daigun kanta,
illetarik biztu Jauna. (*Aingerua ezkutaten da.*)

(PEDRO eta JUAN itsal datoz. Eurak ikusi orduko bidera
urteten dautse emakumiak.)

MADALENA.—Pedro! Pedro! Poztu! Alaitu!

KLEOFAS.—Jesus biztu da!

EMAKUMEAK.—Biztu da! Biztu da bai!

(PEDRO illobi aurrera dua. Aurretik JUAN.)

SALOME.—Zer egin biar dogu orain?

PEDRO.—Jesus biztu? Jesus biztu? Nok daki ori?

KLEOFAS.—Biztu da, biztu da, bai. Aingeruak be adierazi dausku.

MADALENA.—Illobia utsik dago. Begiratu! Begiratu ondo!

PEDRO.—(*Illobia ikusi ondoren, zaratatsu.*) Auxe da miraria!

JUAN.—Berak esaten eban miraria!

PEDRO.—(*Zoro antzera.*) Biztu da! Jesus biztu da! Esaten eban lez
biztu!

(*Belauniko jarten dira, eskertsu.*)

PEDRO ta JUAN.—Jesus!! Maixua!!!

PEDRO.—Argitu Jauna mundu guztia zure biztueraren argitasunaz!

(*Atze aldian, JESUS agertzen da erdi erdian, zuri, argiz
beterik. Errizainak eta irudian agertu diran emakumiak.*)

Apostoluak eta aurreragoko irudietan agertu diran guztiak, Jesus'en aurrean lurra jota, makurtuta agertzen dira, itsututa lez. Abeslariak sutsu, gartsu, Haendel'en ALLELUIA asiko dabe. Jesus biztuaren aintza ta anditasuna egokiro ta bizi agertu biar da irudi onetan.)

A M A Y A

